



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko maiatzaren 14a

57. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Leozko Udalarri buruzko fiskalizazio txostena –azterketa mugatua–, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Leozko Udalari buruzko fiskalizazio txostena –azterketa mugatua–, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko apirilaren 14an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Leozko Udalari buruzko fiskalizazio txostena –azterketa mugatua–, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2015eko apirilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Leozko Udalari buruzko fiskalizazio txostena –azterketa mugatua–, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Helburua eta norainokoa (5. or.).
- III. Ondorioak eta gomendioak (5. or.).
 - III.1. Idazkariaren eta alkatearen ordainsarien azterketa (5. or.).
 - III.2. Aldi baterako langileak NEZen bitartez kontratatzeari buruzko azterketa (7. or.).
 - III.3. Orbalan, S.L udal sozietatearen kudeaketaren eta jarduketaren azterketa (7. or.).
- I. eranskina. Leozko Udalaren 2013ko kontu orokorraren laburpena (10. or.).
- II. eranskina. Orbalan, S.L. udal sozietatearen 2013ko urteko kontuak (12. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (13. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (14. or.).

I. SARRERA

2013ko ekainaren 20an, Leozko Udaleko Hiru Erreka hauteskunde-taldearen eskari bat erregistratu zen Kontuen Ganberan, toki entitate horri buruzko fiskalizazio-txosten bat egiteko. Zehazki, auditoria hori beharrezkotzat jotzeko arrazoiak aipatzen ziren, honako gai hauek azaltzen diren ardatz gisa: idazkariak eta alkateak jasotako ordainsariak, Orbalan udal sozietatearen jarduerak eta kudeaketa eta Udalak langile batzuk Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartez kontratatzea.

Jasotako eskariak Udaleko kontuak fiskalizatu beharra aipatzen bazuen ere, gaia aztertuta, egokitzen jo dugu toki entitate horren azterketa mugatu bat egitea, gure azterketa-esparruan sartuz soilik aurreko puntuan aipatutako gaiak.

Azterlan hori Kontuen Ganberak 2015. urterako onartu zuen fiskalizazioko urteko programan sartu zen, eta auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak egin zuen, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboekin lankidetzan. Azterketa lana 2015eko otsailean egin da.

Leotz Nafarroako erdialdeko udalerrri bat da, Orbaibarko eskualdekoa, eta Iruñetik 38,5 kilometrora dago. 96 km²-ko azalera du eta 258 biztanle zituen 2013ko urtarrilaren 31n. Udalaren egoitza Iratxetan dago.

Hiru kontzeju dauzka (Leotz, Olleta eta Iratxeta), bai eta 10 biztanle-gune ere (Amatriain, Amunarrizketa, Artariain, Benegorri, Bezkitz, Iriberrri, Makirriain, Santsoain, Santsomain eta Uz-kita).

Udalak, 1999an, Orbalan, S.L. udal sozietatea sortu zuen, 6.000 euroko kapitalarekin, ibarreko enplegua zenbait jardueraren bitartez sustatzeko: mendia mantendu eta zaintzea, herrien garbiketa, ingurumen proiektuak egitea eta abar. Gaur egun, bi langile dauzka, Udalarentzat lan egiten dutenak: administrari bat eta zerbitzuetako langile bat. Gainera, Udaleko idazkaria da sozietatearen kudeatzaile-lanak egiten dituenak, eta Udalak berak ordaintzen dio horregatik.

Udalaren eta haren sozietatearen datu ekonomiko eta langileei buruzko datu nagusiak honakoak dira 2013ko ekitaldiaren itxieran:

	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2013-12-31n
Udala	572.290	452.488	1
	Diru-sarrerak	Gastuak	Langileak, 2013-12-31n
Orbalan, S.L. udal sozietatea	69.763	71.154	2

Txosten honetako 1. eta 2. eranskinetan Udalaren eta sozietatearen 2013ko kontu orokorrari buruzko datu garrantzitsuenak erakusten dira. Udalak berak emandako datuak dira, eta ez ditugu auditatu.

Udalak honako erakundeetan hartzen du parte: Mairagako Uren eta Hondakin Solidoen Mankomunitatea, Orbaibarreko Garapenerako Elkartea, Tafallako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Bata-suna, Erdialdearen Garapenerako Partzuergoa eta Tafallako Etxebizitzak Zaharberritzeko Bulegoa.

Ondoren ematen dugu Leozko Udalak ematen dituen zerbitzu nagusiei buruzko laburpen bat:

	Udala	Partzuergoa Mankomunitatea	Zerbitzuen batasuna	Ondasunen lagapena	Udal sozietatea
Zerbitzu administratibo orokorrak	x				x
Musika eskola		x			
Etkez etxeko laguntza-zerbitzua		x			
Hilerriak	x				
Hirigintza			x		
Bideak garbitzea	x				
Liburutegia				x	
Lorezaintza eta hiri altzariak					x
Hiri hondakinak		x			
Ondarea mantentzea: Turismoa					x
Uraren presio handiko eta txikiko hornidura		x			
0-3 urtekoen ikastetxea			x		
Oinarritzko gizarte-zerbitzua		x			
Erabilera anitzeko lokalak				x	
Toki garapena			x		
Argiteria publikoa	x				
Hirugarren adinekoen jarduerak			x		

2002an, Kontuen Ganberak Leozko Udalaren 2000ko ekitaldiari buruzko txosten bat argitaratu zuen; gainera, 2011n, beste txosten bat egin zuen Ganberak, non 500 biztanletik beherako Nafarroako udalak aztertu zituen; horien artean, Leozko Udala zegoen.

Udalari aplikatzekoa zaion araubide juridikoak funtsean osagai hauek ditu: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

Sozietate publikoa, bere estatutuez gainera, toki-araubidearen araudi orokorraz eta indarrean dagoen merkataritza-araudiaz arautzen da, Merkataritza Kodeaz, Kapital Sozietateen legeaz eta Kontabilitate Plan Orokorrak, bereziki.

Txostena hiru ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarren atalean, lanaren helburuak eta norainokoa azaltzen dira, eta hirugarrenean, fiskalizazioaren ondorio aipagarrienak azaldu eta Udalaren eta haren sozietatearen kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ematen ditugu.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak eman nahi dizkiegu Udaleko eta haren sozietateko langileei.

II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Erregistratutako eskariaren edukia kontuan hartuta, honakoak dira lan honen helburuak.

- Udaleko idazkariaren eta alkatearen ordainsariak aztertzea.
- Udalak Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartez egiten duen langileen aldi baterako kontratazioa aztertzea.
- Orbalan udal sozietatearen jarduera eta kudeaketa aztertzea, bai eta Udalarekin dauzkan loturak ere.

Gure lanaren norainokoa honakoak sartzen dira: adierazitako langileen nominak eta espedienteak, Udalaren eta sozietatearen 2013ko kontu orokorrak eta urte horretako aldi baterako langileen kontratazioak.

Lana Espainiako Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko printzipioei eta araei jarraituz gauzatu da, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun prozedura tekniko guztiak bildu dira.

Txostenari erantsi zaizkio, halaber, egokitzen jotzen diren aholkuak, Udalak eta haren sozietateak ezarritako barne-kontroleko sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edota osatzeko.

III. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

III.1. IDAZKARIAREN ETA ALKATEAREN ORDAINSARIEN AZTERKETA.

Idazkariaren ordainsariak

Leozko Udalak 1989tik dauka idazkari propioa, zeinak lanaldi osoan jarduten baitu. Horri dagokionez, 2008ko abenduan, Orbaibarko Zerbitzuen Batasuna sortu zen, non Puiu, Untzue, Gari-noain, Orisoain eta Olorizko udalak sartu baitziren. Idazkari eta administrazioko langile propioak dauzka batasun horrek. Aurrekoa gorabehera, Leozko Udalak bere langileekin jarraitzea erabaki zuen.

Leozko Udalaren 2014rako plantillak bi lanpostu dauzka: bata funtzionarioarena, idazkariari dagokiona, eta bestea aldi baterako langile batena, aholkulari juridikoari dagokiona. Biak hutsi daude. Plantillan zehaztuta dago idazkari lanpostua betetzeko administrazio-araubidean kontratatuta dagoen pertsona 1989ko bera dela.

2010ean, Nafarroako Toki Administrazioako Departamentuak errekurtsua aurkeztu zuen plantilla horren aurka, idazkari lanpostuan lan-araubideko langile bat agertzen zelako eta merezimendu-lehiaketa sarbide gisa jasotzen zuelako. 2011n, 2012an eta 2013an, Udalak ez zuen plantilla onetsi, aurreko errekurtsua ebatzi gabe zegoelako.

Azkenik, 2013ko azaroan, aipatutako errekurtsua baietsi zen, eta Udalak, epaia betez, 2014ko apirilean 2010-2014 aldiko plantilla onetsi zuen, non egoki jasotzen baitzen idazkari lanpostuari buruzko informazioa; hau da, administrazio-araubidean kontratatutako langile bat dela, eta lanpostu hori betetzeko modua Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legean zehaztutakoa dela.

Plantillaren arabera, idazkariak Nafarroako Gobernu A mailako funtzionarioen ordainsariak jasotzen ditu, bai eta ehuneko 60ko lanpostu-osagarri bat ere.

Osagarri hori bi atal dauzka: bata ehuneko 26,77ko lanpostu osagarriarena, eta bestea, ehuneko 33,23ko lanpostu-osagarriarena, Orbalan, S.L. udal sozietatean idazkariak betetzen dituen kudeatzaile-lanei dagokiena; lan horiek txosteneko III.2 atalean aztertu dira.

Aurrekoaz gainera, idazkariak kilometraje-dietak jasotzen ditu, zeinek 2013an 1.296 euro egin baitzuten.

Idazkariaren ordainsariak aztertuta, ondoriozta daiteke ezen, orokorrean, kasuko erabakietan oinarrituta daudela, zuzen kontabilizatuta daudela eta aplikatzekoa den araudiaren arabera direla. Halere, honako salbuespenak aipatu behar ditugu:

- Antzinasunari dagokion ordainsaria hirurtekoen arabera kalkulatu da. Kontuan hartuta lanpostu horri dagokiona administrazio-araubidea dela, zenbateko horrek bosturtekoen arabera kalkulatu beharko luke egon.

Horri dagokionez, aipatu beharra dago Udalaren 2010eko plantillaren aurka errekurtsioa aurkeztu zuela Toki Administrazioako Departamentuak, zeren eta idazkari-postua lan-kontratupeko langile gisa agertzen baitzen, administrazio-kontratudun gisa agertu beharrean. 2013k abenduaren 16an epai irmoa eman zen, non ezartzen baita ezen, aplikatzekoa den araudiaren arabera, idazkari lanpostua, funtzionario batek bete ezean, administrazio-kontratudun batek bete behar duela.

Epai hori eman zen egunean, idazkaria lanerako aldi baterako ezintasun egoeran zegoen. 2014ko urrian hasi zen berriz lanean. Orduan zuzendu zen haren kontratua, epaian adierazita-koaren bidetik. Gero, 2015eko otsailean, Udalaren Osoko Bilkurak erabaki zuen kontentsazio-osagarri bat ezartzea, idazkariak hirurtekoen kontzeptuan jasotako zenbatekoaren adina ordainsari gutxitze aldera.

- Plantillan agertzen den lanpostu osagarriaren gutzitza ehuneko 60koa da. Nominan ez da zuzen aplikatzen. Egiazki langileak jasotzen duen portzentajea ehuneko 57,72 da.

- Idazkaria Zuzenbideko lizentziaduna ez denez, Udalak bere burua premiatuta ikusi du aholkularitza juridiko baten zerbitzuak kontratatzeko. Horrek berarekin ekarri du pertsona bat astean bi egunez udaletxean egotea. 2013an, kontzeptu hori dela-eta Udalak eduki duen gastua 13.554 eurokoa izan da.

Aurrekoari gehituta, aholkularitza-enpresa horrek berak 5.825 euro fakturatu zituen kontratuaz kanpoko gai juridiko batzuekin lotutako zerbitzuengatik; izan ere, horrela egitea ezarri zen kontratuan.

Gure iritziz, arlo honetan 1989an indarra zuen legediari jarraituz, data horretan kontratatu baitzen idazkaria, A mailako lanpostu hori goi mailako tituludun batek bete beharko zuen.

Alkatearen ordainsariak

Alkatearen ordainsaria, Osoko Bilkurak 2011ko uztailaren 1ean onetsia, orduko 18 euro gordinekoa da, astean 20 orduko jardunaldia egiten duela jota. 2013an kobratutako kopurutik ondorioztatzen da alkateak hilean 80 orduz jardun duela lanean urteko hilabete guztietan.

Egiaztatu dugu ordainsari guztiak zuzen kontabilizatuta daudela eta aplikatzekoa den araudiaren arabera direla. Gainera, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko 27/2013 Legeak ezarritako mugak betetzen ditu.

Hona gure gomendioak:

- *Idazkariaren nomina behin betiko erregularizatzea, azaldutako aldeak kontuan hartuta.*
- *Udala Orbaibarko Administrazio Zerbitzuen Batasunari atxikitzea, idazkaritza zerbitzuak ematen baititu.*

- *Baldin eta Udalak erabakitzen badu idazkari propioa izaten jarraitzea, lanpostu hori Zuzenbideko lizentziaduna den langile batekin betetzea, zerbitzu horiek kanpoan kontratatu behar ez izateko.*

III.2. ALDI BATERAKO LANGILEAK NEZEN BITARTEZ KONTRATATZEARI BURUZKO AZTERKETA

2013an, NEZek toki entitateei langabetuak kontratatzeko diru-laguntzak arautzen zituzten oinarrietara bilduta, Leozko Udalak laguntza eskatu zuen Makirriaingo eraikin batean erreforma partzial bat egiteko eta udalerriko mantentze lanak egiteko.

Diru-laguntza hori eman egin zitzaion, eta Udalak enplegu-eskaintza bat erregistratu zuen Tallako Enplegu Bulegoan, bi peoik lanaldi osoan sei hilabetez lan egiteko.

Diru-laguntzetarako deialdiaren 12. oinarriari jarraituz, Udalak eskatutako bi pertsonetatik batek langabetuen kolektibo jakin batzuetakoa izan behar zuen.

Hautaprobak Udaletik kanpoko profesional independente batek egin zituen. Hautapropa horren emaitzen ondoren, lehentasunezkoak ez ziren kolektiboetatik puntuaziorik onena lortu zuen pertsona kontratatu zen.

Lehentasunezko kolektiboetakoa izan behar zuen pertsonari dagokionez, ez dago jasota Udalak zergatik ez zuen kontratatu hautaprobetara aurkeztu ziren hiru pertsonetatik puntuazio altuena lortu zuena. Bigarren hobeki sailkatutakoak lanpostuari uko egin ondoren, hautapropa hasi eta denbora gutxira hura abandonatu zuen izangaia kontratatu zen. Uste dugu jarduketa hori zuzengabea eta arbitrarioa izan zela, zeren eta legezkotasun, objektibotasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen aurkakoa baita.

Peoi horiek egindako lanen koordinazioa Orbalan udal sozietateko zerbitzu anitzetako ardura-dunak egin zuen, baina langile horien gastua Udalak ordaindu zuen.

Gomendatzen dugu kontratatzea kasuko diru-laguntzen deialdietan baldintzak betetzen dituzten pertsonak eta egiten diren hautaprobetan puntuazio handiena lortzen dutenak.

III.3. ORBALAN, S.L UDAL SOZIETATEAREN KUDEAKETAREN ETA JARDUKETAREN AZTERKETA

Datu orokorrak

Orbalan udal sozietatea 1989an sortu zen, honako helburuekin:

"...Leozko Udalak edo beste administrazio publiko nahiz ekimen pribatuak enkargatzen dituzten zerbitzu publiko edo/eta pribatuak emateko, agintaritzaz baliatzekoak izan ezik; honakoak zerbitzuak, zehazki: garraioa, gizarte zerbitzuak, obrak, bertako baliabideen mantentzea, eta arkitektura-, kultura- eta ingurumen-ondarearen babesa eta berreskurapena; Orbaibarko baliabide endogenoekin lotutako jarduera sozio-ekonomikoak egitea; landa garapeneko ekimenak eta enplegurako tokiko ekimenak sustatu, bultzatu eta laguntzea, enplegu egonkorra sortze aldera, basoen aprobetxamenduari, nekazaritzaren eta abeltzaintzarekin lotutako edozein lan edo/eta zerbitzutan; turismoa, aisia eta kirola; ehiza-aprobetxamendua, artisautza, ingurumena, energia berriztagarriak eta Orbaibarren behar diren baliabide eta zerbitzuak ustiatzeko beste bide batzuk..."

Sozietateak, bi motatako jarduerak egiten ditu:

- Leozko Udalaren administraziorako laguntza-lanak: udal jarduerarekin, bake-epaitegiarekin, erregistro zibilarekin eta bando eta komunikazioak banatzearekin lotutako lan administratiboak, bai eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak diruz lagundutako langileekin egiten diren obren koordinazioa ere.

- Udal ondarea mantentzeko eta zaharbertzeko lanak: kaleak eta bideak garbitzea, bai eta udal eraikinak ere; ehorzketa zerbitzuak eta hilerrien eta udal eraikinen mantentze-lanak, inausketa- eta lorezaintza-lanak eta abarrekoak.

2013an, sozietatearen bezero bakarra Udala da, salbu eta erabilitako ibilgailu baten salmentaren kasuan, hirugarren bati saldu baitzitzaien.

Sozietateak zerbitzu horiek Udalari emateko daukan euskarri juridikoa da urtero Osoko Bilkurak kasuko enkarguak onesten dituela.

2013ko jarduera eta langileak

2013an, sozietateak 69.760 euroko diru-sarrerak islatu zituen bere galeren eta irabazien kontuan; horietatik, ehuneko 99 Udalari emandako zerbitzuei dagozkie, eta ehuneko bata, berriz, aipatutako ibilgailuaren salmentari.

Ondokoa da sozietateak Udalari egindako fakturen laburpena.

	Orduak	Prezioa orduko	Guztira	Udalarentzako kostua (BEZa barne)
Administraria	1.190,33	23,5	27.972,76	33.847
Zerbitzu anitzetarako ardura-duna	1.388,84	25	34.721,00	41.681
Peoia	198,50	22	4.367,00	4.804
Garbiketa	94	18,18	1.709,09	2.068
Guztira			68.769,85	82.400

Ikusten denez, sozietateak Udalari zerbitzua emateak 82.400 euroko aurrekontu-gastua eragin dio azken horri. Zenbateko horri gehitu beharko litzaioke idazkariari, sozietate horren kudeatzaile-lanak egiteagatik, ordaintzen zaion osagarria, hilean 600 eurokoa, gehi horri dagozkion gizarte segurantzako gastuak. Guztizko gastuak, horrenbestez, 93.395 euro egiten du.

Jarduera horren garapenak 2013an 1.391 euroko galera eragin dio sozietateari; horri gehitu behar zaizkio aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak, zeinek 147.380 euro egiten baitute. Halaber, Udalaren ekarpen batzuk badaude, sozietateak izandako galerak konpentsatzekoa. 104.347 euro egiten dute.

Sozietateak bi langile dauzka: ofizial administrari bat, ehuneko 80ko lanaldiarekin, eta lanaldi osoa duen zerbitzu anitzetako langile bat. Aurrekoaz gainera, Udaleko idazkaria sozietateko kudeatzailea da, nahiz eta Udala izan zerbitzu horiengatik ordaintzen diona.

Ofizial administraria 2001ean kontratatu zen, tokiko garapenerako dinamizatzaile gisa; 2003tik, ordea, ofizial administrari eginkizunak betetzen ditu, eta horixe dago jasota haren nominetan. Zerbitzu anitzetako langileari dagokionez, 2007an kontratatu zen.

Pertsona horien eta sozietatetik pasa diren gainerakoen kontratazioa zuzenean egin zen, deialdi publikorik egin gabe eta inongo hautaprobarik egin gabe. Langile horiei Nafarroako Gobernuak langileen hitzarmena aplikatzen zaie.

2013ko ekonomiaren eta efizientziaren azterketa

Sozietateak egiten dituzten Udalaren langile propioekin egin zitezkeen jarduerak, kalkulatu dugu zein gastu ekarriko liokeen Udalari aukera horrek oraingoaren aldean, kontuan izanda sozietateko langileek betetzen duten lanaldia, jasotzen dituzten osagarriak eta dagokien gizarte segurantzak.

Halaber, bi aukera hartu dira aintzat: kasuko lanpostua funtzionario batek betetzea ala lan-kontratudun langile batek betetzea. Ondoren azaltzen ditugu lortutako emaitzak:

Kategoria	Lanaldia (%)	Maila	Udalarentzako gastua		Aldea
			Baliabide berekiak	Orbalanek fakturatutakoa	
Administraria Funtzionarioa	76	C	25.369	33.847	8.478
Administraria Lan-kontratuduna	76	C	24.023	33.847	9.824
Zerbitzu anitzak. C mailako funtzionarioa	90	C	31.211	41.681	10.470
Zerbitzu anitzak. C mailako lan-kontratuduna	90	C	29.868	41.681	11.813
Zerbitzu anitzak. D mailako funtzionarioa	90	D	27.225	41.681	14.456
Zerbitzu anitzak. D mailako lan-kontratuduna	90	D	26.013	41.681	15.668
Garbiketa	6	E	1.202	2.068	866

Aurreko taula aztertuta, honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- Kasu guztietan, Udalak aurrezki bat lortuko luke baldin eta jarduera horiek bere baliabideekin eginen balitu.
- Aldeak zer edo zer handiagoak dira kontratua lan-araubidekoa denean, funtzionario-araubidekoa denean baino.
- Normalean, zerbitzu anitzetako arduradunak D mailakoak izaten dira, baina udal sozietatean lan horiek egiten dituen pertsona C mailan sartu da. Hori dela eta, bi aukerak hartu dira aintzat. Logikoa denez, aldeak handiagoak dira lanpostu hori D mailakotzat jotzen denean.
- Ez dira kontuan hartu sozietateak Udalari 2013an fakturatutako peoi orduak, zeren eta 2012ko gastu bati baitagozkio eta gastu hori ez baitzen existitu aztertutako ekitaldian.

Kontuan hartu beharko litzateke, halaber, Orbaibarko Administrazio Zerbitzuen Batasuna badagoela, idazkaritza- eta administrazio-zerbitzuak ematen dizkiena hura osatzen duten udalerriei. Ez dugu aintzat hartu zenbateko kostua ekarriko liokeen Udalari haren kidea izateak, zeren eta ez baitakigu horrek ekarriko lukeen ala ez batasun horrek egun dauzkan langile-baliabideak aldatzea; izan ere, horrek eragin zuzena ekarriko luke Udalak jasan beharreko gastuan.

Azken batez, ulertzen dugu sozietatea, bere jatorrian, justifikatuta egon zitekeela ibarrean enplegua sustatzeko eta bertako ekonomia bultzatzeko, baina gaur egun egiten duen jarduera Udalarentzat ekonomikoagoak eta efizienteagoak diren beste bide batzuetatik egin liteke.

Gure gomendioak:

- *Udal sozietate desagitea eta Udalak egun sozietate horri enkargatzen dizkion lanak egiteko dauden aukerak aztertzea.*
- *Sozietateari eutsiz gero, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak aplikatzea egiten diren langile-kontratazioetan.*

Txosten hau auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2015eko martxoaren 27an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

I. ERANSKINA. LEOZKO UDALAREN 2013ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Gastu-aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Kontzeptua	Kap.	Hasierako kreditua	Aldaketak	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetakoa (%)	Aitortutako guztiaren gaineko ehunekoa
Langile-gastuak	1	110.830	0	110.830	104.727	104.727		94	23
Zerbitzuak eta ondasun arruntak erostea	2	170.850	12.041	182.891	166.672	159.309	7.363	91	37
Finantza-gastuak	3	11.300	0	11.300	9.124	9.124	0	81	2
Transferentzia arruntak	4	55.950	31.461	55.950	54.366	49.472	4.894	97	12
Inbertsio errealak	6	84.130	0	115.591	92.672	90.902	1.770	80	20
Finantza-pasiboak	9	25.000	0	25.000	24.927	24.927	0	100	6
Gastuak, guztira		458.060	43.502	501.562	452.488			90	100

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Kontzeptua	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Kobrantzak	Kobratzeko dagoena	Betetakoa (%)	Aitortutako guztiaren gaineko ehunekoa
Zuzeneko zergak	1	220.000	0	220.000	221.551	211.582	9.969	101	39
Zeharkako zergak	2	2.500	0	2.500	1.975	1.975	0	79	0
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3	1.750	12.258	14.008	68.636	68.636	0	490	12
Transferentzia arruntak	4	104.560	0	104.560	101.199	91.957	92.42	97	18
Ondare bidezko diru-sarrerak	5	127.250	0	127.250	123.003	119.603	3.400	97	21
Inbertsio errealak besterentzea	6	2.000	0	2.000	0	0	0	0	0
Kapital-transferentziak	7	0	19.203	19.203	55.927	36.724	19.203	291	10
Finantza-aktiboak	8	0	12.041	12.041	0	0	0	0	0
Diru-sarrerak, guztira		458.060	43.502	501.562	572.290	530.477	41.814	114	100

2013ko ekitaldiko aurrekontuaren emaitza

Kontzeptua	2012ko ekitaldia	2013ko ekitaldia
Aitortutako eskubide garbiak	474.946	572.290
Aitortutako betebeharrak garbiak	460.909	452.488
Aurrekontu-emaitza	14.037	119.802
Doikuntzak	0	4.545
Diruzaintza-gerakinarekin finantzaturako gastuak	0	4.545
Aurrekontu-emaitza doituak	14.037	124.347

Diruzaintza-gerakina 2013ko abenduaren 31n

Kontzeptua	2012ko ekitaldia	2013ko ekitaldia	Aldearen ehunekoa
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	49.340	63.928	30
(+ Aurrekontuko diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia)	35.763	41.813	
(+ Aurrekontuko diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak)	16.213	23.354	
(+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak)	13.088	18.286	
(+) Bilketa zaileko eskubideak	15.724	19.525	24
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	60.870	33.882	-44
(-) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	34.726	14.027	
(-) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	15.339	9.834	
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	10.805	10.021	
(+) Diruzaintzako funts likidoak	161.869	241.076	49
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0	0
= Diruzaintza-gerakina, guztira	150.339	271.122	80
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuen arabera	0	0	-
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	0	0	-
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	150.339	271.122	80

II. ERANSKINA. ORBALAN, S.L. UDAL SOZIJETATEAREN 2013ko URTEKO KONTUAK

2013ko abenduaren 31ko egoera-balantze laburtua

Jardunean	2013ko zenbatekoa	Ondare garbia eta pasiboa	2013ko zenbatekoa
Aktibo ez-arrunta	862	Ondare garbia	3.257
Ibilgetu ukiezina	27	Kapitala	12.010
Ibilgetu materiala	835	Erreserbak	35.671
		Emaizta	-148.771
		Bazkideen bestelako ekarpenak	104.347
Aktibo arrunta	9.561	Pasibo arrunta	7.166
Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	3.166	Hornitzaileak	983
Eskudirua eta bestelako aktibo likido balioki-deak	6.395	Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	6.183
Aktiboa, guztira	10.423	Pasiboa, guztira	10.423

Galeren eta irabazien kontu laburtua, 2013ko abenduaren 31n

(ZOR)/HARTZEKO	2013
Negozioren zenbateko garbia	69.760
Hornidurak	(-1.177)
Bestelako ustiatzeengatiko diru-sarrerak	-
Langile-gastuak	(-59.045)
Bestelako ustiatze-gastuak	-9.083
Ibilgetuaren amortizazioa	(-1.260)
Ustiapeneko emaitza	(-805)
Emaizta finantzarioa	(-586)
Zerga aurreko emaitza	(-1.391)
Ekitaldiko emaitza	(-1.391)

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Aztertu dugu Kontuen Ganberaren 2015eko martxoaren 20ko fiskalizazioko behin-betiko txostena, Leozko Udalaren gaineko azterketa mugatu bati buruzkoa –2015eko martxoaren 20an sartu zen Udaleko erregistroan eta Leozko Udalarari eskuratu zitzaion, aztertu eta 2015eko martxoaren 26a baino lehen kasuko alegazioak aurkez zitzan–. Idazki honen bidez, legezko garaian eta moduan, honako **alegazioak** aurkezten dizkiogu behin-behineko fiskalizazio-txosten horri, haren edukian oinarrituta.

Lehena.- Kontuen Ganberaren behin-behineko fiskalizazio-txosten horren 9. orrialdean (III.2 puntuan), honakoa esaten da:

“Lehentasunezko kolektiboetakoa izan behar zuen pertsonari dagokionez, ez dago jasota Udalak zergatik ez zuen kontratatu...)”.

Horri dagokionez, esan beharra dago Leozko Udalak, hautaprobak egin aurretik ere, akats material bat tarteko, ulertu zuela lehentasunezko kolektiboak zirela soilik 50 urtetik gorako pertsonak eta 30 urtetik beherakoak, eta horrelaxe argitaratu zen udalerriko herrietako bandoetan eta Udalaren webgunean, eta inork ez zuen horri buruz inongo oharrik egin, ezta lanpostua eskuratzeko aurkeztu ziren izangaiek ere.

Akats horretatik abiatuta, lehenengo 50 urtetik gorako pertsona bat kontratatu zen (kontuan izan gabe, iraupen luzeko langabetu bat zela). Pertsona horrek, lanean egun batez jardun ondoren, uko egin zion lanpostuari, aurkeztu zuen idazki batean horretarako arrazoiak emanaz. Biharamunean, beste behin kontuan izan gabe zerrendan iraupen luzeko langabetuak zeudela, lanposturako kontuan hartu zen soilik zerrendan geratzen zen eta 30 urte baino gutxiago zeuzkan pertsona bat. Horri dagokionez, argitu beharra dago erabaki hori hartu zela sinetsita kontratatutako pertsona zela aurreikusitako diru-laguntzarekin aurrera jarraitzeko bidea ematen zuen bakarra, zeren eta "lehentasunezko" kolektiboko inor kontratatzen ez bazen, diru-laguntza galdu egingen baitzen.

Horrek eramaten gaitu jotzera *“jarduketa zuzengabe eta arbitrarioa”* izan zela dioen iruzkina, legez-kotasun, objektibotasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen aurkakoa izateagatik, ez datorrela ezertan ere bat Leozko Udalaren erabakiarekin, zeinak, akats bat tarteko, ez baitzuen hauta-penerako irizpide bat kontuan izan, baina bai gainerako irizpideak, zeinek sobera justifikatzen baitzuten igeltsero-peoiaren lana egiteko aldi baterako kontratazioa.

Bigarrena.- Behin-behineko fiskalizazio-txosten horren 11. orrialdean (III.3 puntuan), honakoa esaten da: *“Jarduera horren garapenak 2013an 1.391 euroko galera eragin dio sozietateari... ”.*

Galeren egoera horri konponbidea emateko, Udalak aurreikusita dauka 2012ko eta 2013ko finantza-desoreka zuzentzeko plan bat onestea, 6.000 euroko ondare-ekarpen baten bitartez; hartara, enpresa saneatu egingen da eta aurreko ekitaldietako galerak bere gain hartuko ditu.

Egia bada ere urteetan zehar Orbalanen egoerak galera metatu batzuk ekarri dituela, adierazi beharra dago, halaber, haiek zuzentzen joan direla bazkide bakarraren ekarpenen bitartez eta beste urte batzuetako etekinetatik lortutako erreserben bitartez.

Ofizial administrariaren kontratuari dagokionez, adierazi nahi dugu ezen langile horren aipatutako kontratuan eranskin bat sartu dela, hura egokituz 2003tik egiazki egiten aritu den eginkizunetara; horrenbestez, *“tokiko garapenerako dinamizatzailea”* dioen tokian, gaur egun "ofizial administraria" agertzen da.

Orbalan udal sozietateko langileak kontratatzeko moduari dagokionez, esan beharra dago ezen, Udalak udal enpresa sortzeko garaian udalbatzak zeukan helburu garrantzitsuenetako bat zela enpleguaren sustapenaren bidez bultzatzea ibarrean populazioa ezar zedin –ahal zela populazio gaztea–; eta lehentasun horren aurrean ia ez zen kontuan izan kontratazio modua, Foru Komunitateko Administrazioak enpresa publikoetan jarduteko erabiltzen dituenen antzeko parametroei jarraituz (interesdunek curriculumak aurkeztea, NEZri eskariak egitea eta elkarrizketa pertsonalak). Adierazitako dela eta,

NAFARROAKO KONTUEN GANBERARI ARREN ESKATZEN DIOT aurkeztutat har dezala idatzi hau, eta honekin batera Leozko Udalaren buruzko 2015eko martxoko behin-behineko txostenari egingdako alegazioak ere, eta hartara erabaki dezan txostenak alkatetzaren ebazpen honetan azaldutako gaiak ere jasoko dituela.

Iratxetan (Leotz), 2015eko martxoaren 25ean

Alkatea: Ramón Muruzabal del Castillo

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Leozko alkateak aurkeztutako alegazioak aztertuta, ohar horiek txostenari buruzko azalpentzat hartu ditugu, ez baitute haren edukia aldatzen. Txostenari erantsi zaizkio eta txostena behin betikotzat jodugu.

Eskerrak eman nahi ditugu lankidetzarengatik eta egindako oharren edukiarengatik.

Iruñean, 2015eko martxoaren 27an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

